

LANTZEN

Baserrian, kalean, ikastetxeetan, edonun, berba au entzuten da, lurra sortu zan ezkerero. Alper guztiak aparte, eskuetan edo buruan, langilleak eta ikastunak lanaren ezaugarria daroe, Atxurak eta aizkorak babak sortzen ditue esku barruetan ta jakituriak buruan. Batzuk, errez errez, ikusten dira esku zabalean, besteak, ixil ixil, dagoz garunen ondoan.

Lana dala-ta, gizona kezkatu ibili oi da bizitzan ta bear egin bear bizi al izateko. Au da urdaillaren kome-ria. Gizakia, goizetik gabera, arduraz dabil lanaren billa. Izan bere, izadi guztia da gizadiaren bizi-biderako. "Guztia zuentzat da, landu egizue". Sorreran, alan, izan zan.

Lanetik lanera aldea dago. Batzuk mendikoak, batzuk solokoak; batzuk itxasokoak, bestetzuk miña edo miatakoak. Egilleak guztia itzi eban, ondo, orniduta ta giza semea almenez jantzita lur ta itxasoaren babesetik bizia atera egian.

Bear izanaren eran, batzuk lugiñak dira. Lurrak, berez, sasiak emoten ditu ta ez edozelakoak. Ortarako, indar barru barrukoa dauka. Lurra sasiarentzat mamiña da ta arri arteetan bertan, gogotsu, agertzen dira. Ta bizi nai ba-da, atxurra artu ta izerdia botatea besterik ez dago.

Lugiñak eguzkitik eguzkira lan egiten dau. Aurregune-ko nekeak arinduz batera, barriro, laiaz, goldaz eta atxurrez ekin bear deutso iñundiko arlo zailletan. Izerdiak eta egarriak nai aiña, baiña biziak eskatzen daben eran, aurrera ekin bear. Au da baserritarren zoria. Alaber, aurrera, doa, geldu geldika, edertuz baserriko lubarri ezikaitza.

Lurraren sasi indarrak baiño geiago al dau gizonaren almen ta lan gogoak, lurrari zitu edo frutu ederrak emon-eraziz.

Beste langille talde aundi batzuk itxasoan dabiltz, sarri, biziak urratzen janari billa. Aldika, itxasoa oparoa da eurentzat; baiña itxasoak, noz nai, ditu trumoi, aize, astiñaldi, bero, otz ta bakardade mingarriak. Arrantzaliak; alan be, bear-izanak eraginda, neke guzti orrek menperatzen ditu. Estu ibili da, baiña nagusi urten dau, urrialdiak izan ditu baiña azkenean be, itxasoaren erraiak zabaldu jakoz ta sareak arraiñez itxuratu jakoz. Itxaso eta arraiñak lanaren bidez gaindu ditu.

Ba da gizartean beste lan arlo aundi bat; danetan garrantzitsuena ta landuten zailena. Askatasundun giza-semea lantzea, danez goitik dago. Sasiak, arriak, enborrak, burdiñak, giza-semeak bere naietara lantzen ditu, edertasun itxura emonez. Baiña gizonaren burua ta biotza lantzen asten diranean egi ta zuzentasun bidean, sarri askotan, laster jarkiko da gizona zutunduta.

Egia ta zuzentasuna norbere erakoak nai ditu. Okerbidean egon leitekenik, ez dau onartzen. Norbere okerkeriak iñausi ta jentearen aurrean gizon obe ta barri baten bizitza egiten aztea, lotsarizkoa deritxo. Gu, adimendun gizonon jokabidea, sarri askotan, era ortakoa da. Ona emen, gizonen lubarria, danetan garrantzitsuena, etxeak, lanak, jakituriak, erriak aztertu ta zuzendu bear dituna ta norbere burua lantzeko indar bagea sarri askotan.

Aitatu ditugun lur, itxaso ta gizadian, gizadi sailla da ba lantzen zailena. Otea ta larra gogor jarten ba-dira, koskorreko gogorragoa emon eta bera botaten dira; baiña gizona bere askatasun ta eskubideak direla-ta, umeak ere, aurrez aurre, jarten dira zuzenbiderako berba asko entzun baiño len noz nai.

Oteak mendietan
urrezko margoetan
pizti ortzezkoak;
arantza ortzak gogor
leoi agiñak legez
sastakor gaiztoak.

Basurdeak, an bertan,
baso errege antzo
pizti orroetan;
gau-ontzak gabaz, ulu

zugatz lerdnaren gain
erio miñetan.

Eiztari ta lugiña
suizkilluz ta atxurrez
goizeko izarraz;
leoiak jausi dira,
oteak lur gaiñean
atxurren bildurraz.

PAULIN